



euskotren

Proiektu zbk.: 2016/12

Enpresa: **EUSKOTREN**

Emakume langileen autodefentsa garatzea (2014-2016)

Helburua eta aurkezpena: enpresako langileen aurkako sexu indarkeriari aurrea hartzea da helburua, bai barnean eta bai kanpoan. Proiektu hau enpresako Lan Osasuneko Politikaren barruan dago; 1- jazarpen sexual eta sexistaren aurkako protokoloa osatu. 2012tik indarrean dago. 2- helburu hori arrisku psikosozialen taldean landu eta talde hori indarkeria sexistaren gairako prestatu. 3- kanpoko indarkeria egoerak identifikatzea, erabiltzaileek langileei eragindakoa. 4- langileentzako maskulinitasun berrien ikastaroak. 5- emakume langile guztientzako autodefentsa feministako ikastaroak.



Egindako hobekuntzak: autodefentsa feministako ikastaroak egin emakume langile guztiekin, erabiltzaileek eragin ahal dizkieten indarkeria egoeretan laguntzeko.

Bereizgarriak: erabiltzaileek eragindako indarkeriazko gertaeren prebentzioari ekiten zaio, emakumeen beharretatik abiatuta. Emakumeentzako autodefentsaren alorreko prestakuntza berariazkoa. Indarkeriaren jatorrian desberdintasuna jorratzen duen ikuspuntu feminista. Emakume langileen % 100ek egin dute ikastaroa. Proiektu orokorrago batean garrantzia galduko luketen langileen beharrak eta proposamenak biltzen dira.

Prozesuaren deskribapena: proiektu hau finkatuta dago, izan ere, dagoeneko emakumeen lantaldeko ia % 90 igaro dira. (181, guztira 202 izanda). % 100 aurreikusita 2016 barruan.

Lortutako emaitzak: komunikazio hobea, langileen eta enpresaren artean feedback handiagoa. Autodefentsako ikastaro horiei esker, arrisku egoerak identifikatu ahal izan dira lanpostuetan, emakume langileak bereziki zaurgarri sentitzen diren puntu edo eremu batzuk identifikatuz (arriskuen aurkako neurriak hartzen ari dira: ibilbide arriskutsuetan segurtasun zaintzaileak jarri dira, eta nahikoa argi ez zuten eremuak argiztatu dira). Emakumeek sexu-kontzientzia har dezaten eta orain arte onartu diren portaera jakin batzuk onar ez ditzaten balio izan du. Gertaera-kopurua jaitsi egin da ikuskatzailearen postuan; 2014an 32 izan ziren, eta 2015ean 17.